

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOA

Hautaketa prozesuaren deialdi publikoa egiteko Arabako Foru Suhiltzaileen Erakunde Autonomoaren Administrazio Kontseiluaren akordioa, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren suhiltzaile gidari lanpostuak aldi baterako betetzeko kontratazio zerrenda handitzeko

Uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren bidez, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoa sortzea onartu zuten, Arabako Lurralde Historikoan prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua kudeatzeko eta babes zibil eta larrialdietako arretaren arloan parte hartzeko erakunde aditu gisa.

Sortu zenetik, erakunde autonomoak zenbait lan eskaintza publiko egin ditu, bere langileak finkatzeko. Hautaketa prozesu horien ondorioz, erakunde autonomoak kontratazio zerrenda bat du lanpostuak aldi baterako betetzeko. Zerrenda hori, suhiltzaile kategorian sartzeko prozesuak gaingitu zituzten baina plazarik lortu ez zuten hautagaiek osatzen dute.

Hala eta guztiz ere, 2016-2017. eta 2018. urteetako lan eskaintza publikoei dagozkien hautaketa prozesuen ondoriozko kontratazio zerrenda ez da nahikoa erakunde autonomoaren bitarteko langile beharrak asetzeko.

Egoera horren aurrean, suhiltzaile gidariaren lanpostuak betetzeko zerrendetako kideek berriazko prestakuntza eta trebakuntza izan behar dutenez hasieratik, egokitzen jo dugu zerrenda hori arintasunez eta azkar handitzea. Horrela, xede horretarako berriazko deialdia onartuko dugu. Hor, suhiltzaile gidari gisako lanbide esperientziari lehentasuna emango zaio, gainerako interesdunak gutxietsi gabe, betiere parte hartzeko baldintzak betez, suhiltzaile gidatu lanpostuetan zerbitzuak bete baditzakete. Horrela, gaur egun ez dauden baina egon nahi duten pertsonak kontratazio zerrenda horretan sartu ahalko dira.

Horregatik guztiagatik, dagokion hautaketa-prozesurako deialdia egingo dugu, kontratazio zerrenda hori handitzeko.

Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren estatutuen, uztailaren 13ko 8/2016 Foru Arauak onartutakoen, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera,

ADOSTEN DU

Lehenengoa. Hautaketa prozesuaren deialdi publikoa egiteko ebazpena, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren suhiltzaile gidari lanpostuak aldi baterako betetzeko kontratazio zerrenda handitzeko.

Bigarrena. Aipatutako deialdia arautuko duten oinarriak onartzea, ebazpen honetan eranskin gisa atxikitzen direnak.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, edo nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ALDI BATERAKO LANGILEEN HAUTAKETA

**Hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak, suhiltzaile gidaria
kontratatzeko zerrenda handitzeko 2018/C06****1. Oinarrien xedea**

Oinarri hauen xedea da hautaketa prozesuaren deialdia arautzea, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren suhiltzaile gidari beharrak asetzeko kontratazio zerrenda handitzeko.

2. Parte hartzeko baldintzak

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datan baldintza hauek izan eta prozesu osoan mantendu beharko dira:

a) Erakunde autonomoaren kontratazio zerrendan jada ez egotea, erakundeak edo desagertu den Araiaiko Su Itzaltze eta Salbamenduko Partzuergoak antolatutako hautaketa prozesuetan parte hartzeagatik.

b) Hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Horrez gain, Europar Batasuneko Estatu kideetako nazionalen ezkontideak, bere ondorengoak eta ezkontideenak ere parte hartu ahalko dute, haien nazionalitatea edozein dela, betiere zuzenbidez bananduta ez badago, ez eta haren ondorengoak eta ezkontideenak ere. Horrez gain, ezkontideak ezin daitezke egon zuzenbidez bananduta, ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira, edo hortik gorakoak izanda, gurasoen kontura bizi badira.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua titulua, eskola-graduatua, Lehen Mailako Lanbide Heziketako edo indarreko legediak baliokidetzat hartutako beste edozein titulua izatea, edo hura egiteko eskubideak ordainduta izatea.

Azterriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

Azken baldintza hori ezingo zaie aplikatu beren trebakuntza profesionaleko onarpena lortu ez duten hautagaiei, araututako lanbideen esparruan, erkidegoko zuzenbideko xedapenen babespean. Hautagaiei dagokie onarpen hori egiaztatzeko.

e) C+E gidabaimena indarrean edukitzea.

f) Plazaren berezko lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori, 11. oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatuko da.

g) Diziiplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Batasuneko beste estatu batekoak diren izangaiak ezin dira egon desgaituta enplegu publikoan aritzeko (ez eta horren baliokide den egoera batean ere), eta ezin jaso izan dute beren estatuan enplegu ofiziala lortzea eragozten duen diziplinako zehapenik ez antzekorik.

h) Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasa ordaintzea, inskripzioarekin batera emandako sarrera aginduen bidez.

Ez dute tasa hori ordaindu beharrik izango, eskaria aurkezten duten unean baldintza hauek betetzen dituztenek:

— Ehuneko hogeita hamahiruko edo hortik gorako graduko desgaitasuna izaera egiaztatzea.

— Arabako Foru Aldundira sartzeko hautaprobeen deialdiaren data baino gutxienez hilabete lehenagoko epean enplegu eskatzaile gisa agertzen diren pertsonak.

Ezingo dira salbuespen horretaz baliatu “enplegu hobekuntzaren” eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, ez eta enplegu eskatzailearen prestazio ekonomikoak jasotzen ari direnak ere.

Salbuesteko irizpideei lotzen bazaio, eskatzen diotenean, egoera hori egiaztatu beharko du.

3. Eskaerak aurkeztea

3.1. Prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dute eskaera, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

3.2. Eskaerak eredu ofizial eta normalizatuari jarraituko diote, eta <https://suhiltzaileak.araba.eus> web-orriaren bidez aurkeztu beharko dira.

3.3. Onartuak izateko, hautagaiek haxe egin beharko dute:

a) Adierazi beharko dute eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskaera aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunean betiere.

b) Eskaera atal guztietan bete beharko dute.

c) Dagokion tasa ordaintzea, edo hala badagokio, salbuetsita dagoela justifikatzea.

3.4. Merituak alegatzea eta egiaztatzea: Hautagaiek baloratzeko dituzten merituen eskaeran bertan alegatu eta egiaztatuko dira.

Gainerako Administrazio Publikoetan emandako zerbitzu denbora, abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskinaren ereduaren egiaztatuko da. Betiere xehatu egin beharko dira lan egindako aldian, aldi horiek zein kidego edo eskala, azpieskala eta klase edo kategoriatan egin diren zehaztuta.

Ez da beharrezkoa izango aurkeztea Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoan jadanik dauden agiriak. Hala bada, epe barruan alegatu besterik ez da egin beharko kon-tuan hartzeko. Dena den, hautagai bakoitzari dagokio egiaztatzea dagozkion agiriak dituela egiaztatzea.

Prozesu honetan parte hartzen duten berariazko baimena ematen du beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xederako tratatuko direla. Hautaketa prozesuetan publizitate printzipioei jarraituko zaie, beraz, ez da onartu eskaera bat hautagaiak ez badu uzten datuak lagatzea.

4. Izangaiak onartzea

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Administrazio Kontseiluko lehendakariak, onartutako eta bazterritako hautagaien behin-behineko zerrendak onartu eta argitaratuko ditu Interneteko <https://suhiltzaileak.araba.eus> helbidean.

Zerrenda horietan, pertsonen izena eta bi abizen agertuko dira, nortasun agiri nazionalaren edo horren antzeko agiriaren lau zenbaki zifrekin batera. Hala badagokio, ez onartzeko arrazoia ere agertuko da.

Aipatutako zerrendan bazterrituta agertzen diren pertsonak 10 egun balioduneko epea izango dute, aurretik aipatutako Interneteko helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bazterritzea ekarri duten akatsak edo ez aipatzeak zuzentzeko, edo zerrenden aurkako erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamaziorik badago, baietsi edo ezetsiko dira, beharrezkoa bada behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri bat emanez, aurrekoaren modu berean jendaurrean erakutsiko dena.

Onartutakoen zerrenda egoteak ez du ekartzen interesdunek hautaketa prozeduran eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela. Hamaikagarren oinarriaren arabera, aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada ez dutela betetzen baldintzaren bat, interesdunek prozedura honetan parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

5. Komunikazioak eta jakinarazpenak

Prozedura honen barruan egiten diren komunikazioak eta jakinarazpenak Interneteko <https://suhiltzaileak.araba.eus> helbidean argitaratuz egingo dira.

6. Kalifikazio epaimahaia

Ondoko hauek ariko dira epaimahai kalifikatzailean:

- Lehendakaria:
- Pablo Martínez de Arbuló Echevarría jauna, titular gisa, eta Eduardo Alday Galán jauna, ordezkoko gisa.
- Kideak:
- F. Javier García Reina jauna, titular gisa, eta Xabier Ortiz Pancorbo, ordezkoko gisa.
- F. Javier Vergara Falcés jauna, titular gisa, eta Eduardo Pérez Altube jauna, ordezkoko gisa.
- Idazkaria:
- Sonia Pérez de la Iglesia andrea, titular gisa, eta Maria de los Ángeles Eguía Jauregui andrea, ordezkoko gisa.

Kalifikazio Epaimahaia prozesuaren garapenaz eta merituen balorazioaz arduratuko da.

Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eskatu ahalko du. Aholkulari adituek hitza izango dute, baina botorik ez, beraz, bere espezialitate teknikoetan bakarrik lagunduko diote Epaimahaiari.

Oinarri hauetan ezarritakoa gorabehera, Epaimahaiak sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan ezarritako arauak jarraituko die.

Dena den, lehendakariak aginduta idazkariak deialdia egin ondoren bilduko da. Balioz eratzeko, lehendakaria eta idazkaria bertaratuko beharko dira, edo hala badagokie, haien ordezkariak, gehi kideen erdia gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitate botoaren bidez ebaztuko dira.

Lehendakaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legeko beste arrazoren bat badago, antzinatea eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Plaza bete gabe badago, ez badaude, gaixotasunen bat badute, edo eragiten dieten legeko beste arrazoi bat dela medio idazkaria eta bere ordezkoa aldatu behar badira, Epaimahaiaren gehiengoak erabakitako edozein kide arduratuko da horretaz.

Epaimahaia erabat burujabe izango da bere egitekoetan, prozeduraren objektibotasunaren erantzukizuna izango du, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du. Bere jarduketan independentzia eta hautabide teknikoko printzipioak bermatuko dira.

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoak, 23. artikuluan ezartzen dituen inguruabarretako bat gertatuz gero, epaimahaikideek uko egin beharko diote jarduteari eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari jakinarazi beharko diote.

Halaber, aurreko paragrafoan aipatzen den arrazoietakoa bat badago, hautagaiek Epaimahaiako kideak ezetsi ahalko dituzte edozein unetan, aipatutako legezkotestuen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat, batetik, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu Epaimahaiak; bestetik, deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu; eta, azkenik, behar diren irizpideak ezarriko ditu oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako.

Hautaketa prozesuaren edozein momentutan, Epaimahaiak jakiten badu hautagairen bat ez dituela betetzen dagokion deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat, interesdunari entzun eta gero, baztertzea proposatu beharko dio dagokion organoari. Horrela, hautagaiak parte hartzeko eskaeran adierazitako zehaztasunik ezak edo gezurrak.

Epaimahaiak prozesuan zehar jatorrizko agiriak eska ditzake, eta zalantzak baditu, merituak edota baldintzak betetzen dituela zuzen baloratzeko, beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentazio osagarri eska dezake.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Kalifikazio Epaimahaiaren egoitza erakunde autonomoaren bulegoetan egongo da, helbide honetan: Probintzia plaza, 5, 2. solairua, Gasteiz.

7. Hautaketa prozedura

Langileak hautatzeko, lehiaketa erabiliko da. Gehienez, 180 punturekin (1 puntu hileko) baloratu da karrerako funtzionario, bitarteko langile edo langile lan-kontratadun gisa suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo lanpostuetan sektore publikoan izandako lanbide esperientzia.

Hautagaiek merituak alegatu eta egiaztatu ditzakete prozesuan parte hartzeko eskaeran. Ezingo dira inola ere baloratu eskaeran behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merituak, alegatutako merituak erakundearen jadanik egiaztatuta badaude izan ezik.

Lan egindako aldietako egun kopurua batuko da, eta hilabete baino gutxiagoko aldiak baztertuko dira. Ondorio horietarako, 30 egun naturalek osatuko dute hilabetea.

Sektore publikoan egindako lana eskumeneko organoaren egiaztagiraren bidez egiaztatuko da. Hor, datu hauek jasoko dira: lanpostuaren izena eta ezaugarriak, lanpostu zerrendaren arabera (sailearen taldea, eskala, azpieskala, klasea, espezialitatea/kategoria, titulua), lan lotura eta lan egindako aldia.

Euskara maila, gehienez, 18 punturekin baloratu da meritu gisa.

Egiaztatzen den euskara mailaren arabera, honela banatuko da puntuazioa:

- 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta: 9 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta: 18 puntu.

8. Kontratazio zerrenda

Erakunde autonomoan dagoen kontratazio zerrenda deialdi horretan ateratzen diren pertsonekin handituko da, bi taldetan banatuta, lehentasun ordenaren arabera ordenatuta:

- Lehen taldea osatuko dute, gutxienez, urtebetean suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo gisa zerbitzuak eman dituztela egiaztatzen duten hautagaiek, betiere Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak edo beste administrazio publiko baten Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzu batek emandako prestakuntza ikastaro ofizial bat gainditu dutela egiaztatzen badute, suhiltzaileen berriarazko arloan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandakoaren antzeko eduki homologagarriekin. Ez da bereiziko nork ematen duen trebakuntza hori, hau da, ez du lehentasunik izandako administrazio batek beste baten gainean. Talde honetako kideak honela antolatuko dira:

— Lehentasun ordenaren arabera, lortutako puntuazioaren arabera, 7. atalean adierazitako moduan.

• Bigarren taldea osatuko dute, parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten onartutako gainerako hautagaiek, hots, urtebete baino gutxiagoan suhiltzaile, suhiltzaile gidari edo kabo gisa zerbitzuak eman dituztela egiaztatzen dutenek, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak edo beste administrazio publiko baten Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzu batek suhiltzaileen berariazko arloan prestakuntzarik ez dutenek, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandakoaren antzeko eduki homologagarriarekin.

• Talde honetako kideak honela antolatuko dira:

— Lehentasun ordenaren arabera, lortutako puntuazioaren arabera, 7. atalean adierazitako moduan.

Bigarren talde honen barruan daudenek, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoan suhiltzaile gidari gisa zerbitzuak eman ahal izateko eta lanean hasteko, gaikuntza ikastaro bat gainditu beharko dute. Ikastaro hori bakarrik egingo da Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren beharrek hala eskatzen badute. Nahitaezko kanporaketa-ikastaroa izango da, eta «Gai» edo «Ez gai» bezala kalifikatuko da. Une bakoitzean egokitzen jotzen den hautagai kopurua izango da ikastaroa egingo duena, eta taldearen hurrenkera errespetatuko da.

Bi taldeetan hautagaiek azken puntuazioan lortzen dituzten berdinketak apurtzeko, irizpide hauei jarraituko zaie:

1) Lehendabizi, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoarenaren, 27.2. artikuluan, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, emakume eta gizonen berdintasunerakoaren, 20.4 artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera, emakumeei lehentasuna emango zaie, suhiltzaile kategorian, gutxienez, erakunde autonomoaren langile guztien ehuneko 40 izan daitezen.

2) Bigarrenez, kabo gisa esperientziarik handiena duen pertsona.

3) Azkenik, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzurako langileen sarbideari eta Estatuko Administrazio Orokorraren funtzionario zibilen lanpostuen horniketari eta lanbide sustapenari buruzko arautegi orokorrak onartzen duenak, 17. artikuluan aipatzen duen zozketa. Ez badago lehen abizena zozketa horretan ateratzen den letraz hasten den pertsonarik, ordena hurrengo letrek ezarriko dute, dagokionaren arabera.

Berdinketa hausteko irizpideak suhiltzaile gidari lanpostuetan sortzen diren aldi baterako langile beharra asetzeko deialdietako hurrenkera ezartzeko bakarrik kontuan hartuko dira, baina ez dute aldatuko azken kalifikazioa.

9. Merezimenduen balioespena

Kalifikazio Epaimahaiak <https://suhiltzaileak.araba.eus> helbidean jakinaraziko ditu, bai merituen behin-behineko balorazioa, bai hautagaien zerrenda, taldearen eta puntuazio ordenaren arabera ordenatuta.

Argitalpen horren aurkako erreklamazioa jarri ahalko da, 3 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, aurkeztutako erreklamazioak aurkeztuta, Kalifikazio Epaimahaiak, merituen behin betiko balorazioa eta hautagaien zerrenda jakinaraziko du, taldearen eta puntuazioaren arabera ordenatuta. Horrela, Administrazio Kontseiluko lehendakaritzari helaraziko dio, lehendakaritzako ebazpenaren bidez, hura behin betiko onar dezan.

10. Zerbitzuak ematea

Sortzen diren aldi baterako langile beharrak ikusita, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoak, talde eta puntuazio ordenaren arabera aldeztu aurretik deituta, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren aldi baterako kontratazio zerrendaren kudeaketa arautzen

duen arautegian ezarritakoa gorabehera, bitarteko funtzionario izendatuko ditu kontratazio zerrendan egonda, betetzeko lanpostuaren baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonak, lanpostuen zerrenda, edo hala badagokio, aldi baterako programan, ezartzen denaren arabera.

11. Agiriak aurkeztea

Lanean hasi aurretik, kontratazio zerrendan dauden pertsona guztiei deitu ahalko zaie, Gasteizko Probintzia plazako 5. zenbakian, 2. solairuan dauden erakunde autonomoaren bulegoetan, agiri hauek aurkez ditzaten:

- Nortasun agiri nazionalaren kopia konpultsatua, edo horren baliokidea den agiria, atzerritarra bada. Aurkezten den dokumentuak indarrean egon beharko du. Hautaketa probetan ezkontideak, edo ezkontidearen ondorengoak, Europar Batasuneko herrialde kideetako espainolak edo nazionalak izateagatik aurkeztu diren hautagaien kasuan, eskumeneko agintariek egindako agiriak aurkeztu beharko dituzte, ahaidetasun lotura egiaztatzen duten eskumeneko agintariek egindakoak; baita lotura hori dagoen Europar Batasuneko espainol edo nazionalaren zinpeko deklarazioa edo hitzematea ere, bere ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adieraziz, eta hala badagokio, hautagaia haren ardurapean bizi dela egiaztatuz.

- Deialdian eskatutako titulu akademikoaren kopia konpultsatua.

- C+E gidabaimena egiaztatzen duen agiriaren kopia konpultsatua.

- Aplikatzen badu, egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren kopia konpultsatua.

- Diziplina espediente bidez inongo herri administrazioetik baztertua ez izana, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea. Espainiako nazionalitatea ez duenak, desgaituta edo horren baliokidea den beste egoera batean ez dagoela, eta dagokion Estatuan, enplegu publikora sartzeko diziplinako zehapenik edo antzekorik ez duela jaso egiaztatzen duen zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du. Ondorio horietarako, hautagaiek berariazko baimena ematen diote erakunde autonomoari, Justizia Ministerioaren aurrean dagozkion egiaztapenak egin ditzan, aurrekari penalak ez dituztela egiaztatu dezan. Ez badiote baimenik ematen, hautaketa prozesu honetatik kanpo geratuko dira, eta horrenbestez, amaitutakoan sortzen den kontratazio zerrendatik ere bai.

- Aplikatzen badu, Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako suhiltzaile gidariko berariazko arloan egindako ikastaro ofizialaren kopia, edo beste edozein administrazio publikok emandako ikastaro homologagarria.

Ez da beharrezkoa izango aurkeztea Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoan jadanik dauden agiriak. Hala bada, epe barruan alegatu besterik ez da egin beharko kontuan hartzeko. Erakunde bakoitzari dagokio egiaztatze jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak daude, hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko.

Lanak egiteko gaitasun funtzionala, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoak ezarritako zerbitzu medikoek egindako ziurtagiri medikoaren bidez egiaztatuko da. Hor, hautagaiak, lanak egiteko gaitasun funtzionala duela, eta hori egitea eragozten ez duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatuko da.

Hori egin aurretik, dagokion baimena eskatuko zaie hautagaiei (l. eranskina).

Ez badituzte egin nahi gorago adieraziko probak eta azterketa medikoak, kontratazio zerrendatik kanporatuko dira.

Hautagaiak ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, horrek ez du eraginik izango hautaketan, eta haren jarduketa guztiak baliogabetuko dira. Horrela, kontratazio zerrendatik kanpo geratuko da betiko.

12. Datu pertsonalen babesa

Hautagaiek hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera eta, hala badagokie, geroagoko dokumentazio osagarria aurkeztean, baimena ematen dute eskaera horretan jasotzen diren datu pertsonalak tratatzeko eta prozesuaren geroko kudeaketa egiteko. Horrez gain, jakinaren gainean geratzen dira identifikatuko dituztela eta parte hartzen duten prozesuaren emaitzak jakinaraziko dizkietela, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalak bermatzekoari buruzkoaren, zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzen arabera, aldizkari ofizialetan egiten diren argitalpenetan, iragarki tauletan, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren web-orrian eta hautaketa prozesua arautzen duten oinarriak aplikatuz, erabiltzen den beste edozein baliabidetan.

Halaber, Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoak jakinarazten du hautaketa prozesuaren ondorioz sortzen diren lan poltsak kudeatzeko erabiliko dituela datu pertsonalak.

Prozesuan parte hartzen duen pertsonak kontrakorik adierazi ezean, eskaera izapidetzen duen bitartean, foru erakunde honek, bere eskumenez baliatuz, beharrezko egiaztapenak egin ahalko ditu beste administrazio publiko batzuen esku dauden datu pertsonalen zehaztasuna egiaztatzeko.

Halaber, berariazko baimena ematen du datuak beste administrazio publiko batzuei jakinarazteko, lege ezarritako baldintzetan, etorkizuneko prozesuetarako lan eskaintzak egin ditzaten.

Ikusteko, zuzentzeko, ezabatze, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak, zein lege onartutako gainerako eskubideak baliatzeko, prozesuan parte hartzen duten pertsonak idazki bat bidali beharko diote Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoari, erakundeko helbidera (Probintzia plaza, 5, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz), edo helbide elektroniko honetara: <https://suhiltzaileakegoitza.araba.eus>.

13. Aurka egitea

Deialdi honen aurka, haren oinarrien aurka eta deialditik eta epaimahaiaren jardunetik sortzen diren administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenean, ezarritako epe eta eretan.

I. ERANSKINA

PROBA MEDIKOAK EGITEKO BAIMENA

Izen-abizenak:NAN:..... Adina:.....

Honen bitartez, baimena ematen diot Arabako Foru Suhiltzaileen erakunde autonomoaren Prebentzio Zerbitzuari, suhiltzaile gidari gisa, Prebentzio, Sute Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan sartzeko azterketa medikoaz arduratzen denari, beharrezko azterketa medikoak egin ditzan, suhiltzaile gidariaren berariazko osasun zaintzarako protokoloan jasotzen diren parametroen odol eta gernu ateratzeak barne.

Eta hala jasota gera dadin, baimen hau sinatzen dut,

.....n, 2021eko(e) an